

koen azterketarako, metodologia honetan beti ere, prozesu eta *egitura sozialen konplexitatea teorikoki erreduzitzen duten lau abiaburu edo eredu ezberdin erabiltzen dira gaur:

1. Parsonen sistema-teoria egitural-funtzionala.
2. Luhmannen funtzional-egiturala.
3. Sistema politikoaren **Input-Output**-analisi (Eaton/Almond).
4. K.W. Deutschen Kibernetika politiko.

Joxe Azurmendi

ERREGIMENA; ESTATUA; GOBERNUA.

Slogan

*Erakunde edo *alderdi politikoek jendearen *interesa bereganatzeko erabili ohi dituzten esaldi edo hitzak. *Manifestaldietan, iragarpenetan etab. agertzen dira.

Sobrecarta

FORU-BAIMENA.

Solidaritatea

solidaridad/solidarité

Ikuspuntu edo *interesen komuntasuna. Arrazoi sozial edo politikoengatik *Herri edo *Nazio bati eskainitako laguntza morala edo materiala.

NAZIOA; NAZIONALISMOA; PROLETALGOA; GIZARTEKLASEAK; INTERNAZIONALAK; NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.

Sota eta Llano, Ramón

Bilbotar untzijabe ahaltsua, 1857.ean sortua. Legegizona. Mende honetako lehen urteetako *euskal nazionalismoak ezagutu zuen oligarkarik aipagarriena. «Euskalerrriako» taldekoa. Talde honen laguntzaz baliatuz, *EAJk sei zinegotzi sartu zituen Bilboko *udaletxean 1899.eko hauteskundeetan. Hainbat *elkarteren (Sota y Aznar, Euskalduna, Caminos de Hierro del Norte, Minera Sierra Menera, Banco de Bilbao, etabaren) sortzaile edo kudeatzaile, Merkatal, Industri eta Nabigazio Garbarako lehen idazkari eta Untzijabeen Elkartearen biziarteko lehendakari, kargu hauek guztiok bereganatu zituen euskal nazionalista izan zen. Sotak, 1907.eaz gero, moderatuen joera sostengatu zuen, *autonomia erregionalista (ik. erregionalismoa) epel baten alde ager-

tuz. **Comunión Nacionalistaren** politikan eragin handia izan zuen.

PNV; EUSKAL NAZIONALISMOA.

Sovietak

soviets/soviets

Sovietak Errusiako *Langile-Kontseiluak dira. Sovieten lehen taldea Petersburgen erazten da 1905.ean ia berez bezala eta *alderdien laguntzarik gabe. Herri xumeak tokiko arazoak tokian erabakitzeke ohitura zeukan zentralismoari kasurik egin gabe. Sovietek herriaren aspaldiko joera hori hezurramitu besterik ez dute egiten.

Sovietek *ministraritza gisako beren *batzorde exekutiboa zeukaten. Hemen 562 *ordezkarietatik 31 besterik ez ziren batzordekoak; 31 horietatik, berriz, 22 enpresatako langile-ordezkariek ziren eta beste 9 alderdi iraultzaileen ordezkariak (*mentxevike, *boltxevike eta sozialista iraultzaileak). Alderdietako ordezkariak, ordea, ez zeukaten deliberatzeko ahalmenik. Herrian eta lantegietan egiazki sustaturik zegoen *mugimendua zen Sovietena. Leninen azken urteetan eta bereziki ondorengoetan, *iraultzaren gidariek Sovieten herri-mugimendu indartsu hori Alderdi zentralistan urtzen dute. Horrela galtzen da Sovieten esperientzia aberatsia.

LANGILE-KONTSEILUAK.

Sovietar Errepublika Sozialisten Bata-suna (SESB)

Unión de Repúblicas Socialistas Soviéticas (URSS)/Union des Républiques Socialistes Soviétiques (URSS)

Batasun hau 1922.eko Abenduaren 30ean eratu zen. Gaur egun 15 Errepublika daude barruan. Hona hemen zeintzuk: ESESF edo Errusiako Sovietar Errepublika Sozialista Federatua; Errusia Zuria; Ukraina; Uzbekistan eta Turkmenistan (1925), Tadzikistan (1929); Armenia, Azerbaidjan eta Georgia; Estonia, Letonia, Lituania eta Moldavia (1940); Kazajstan eta Kirgiziako Errepublikak.

SESBren azalera 22.386.200 Km² takoa da. 1970. ean 241 milioi bizilagun zituen. Hiri-burua Mosku da.

Sozial-demokrazia

Langileriaren *interesak *erakunde ofizialetan legalki ordezkatzeko eta aurrera ateratzeko, era demokratiko parlamen-

tarioz, lekuan lekuko *Estatuaren *erregimen-barruan, programa sozialista batez ahalegiten duten *alderdi politikoen izen arrunta da. Sozial-demokrazia **klasikoa** eta **moderno**a bereizi ohi dira; eta, klasikoan, britaniarra (inoiz marxista izan ez dena) eta kontinentala (marxista).

1.- Sozial-demokrazia **klasikoa** Alemanian sortua da, Lassallek (ik. **SOZIALISMOA**, II, III) 1863.ean sorturiko **Langileen Elkarte Orokor Alemana** eta Sozial demokrazien izena eman duen Bebel Liebkechten **Langileen Alderdi Sozial demokrata** (marxista) 1875.ean Alderdi batean urtu zirenean (Gotha) sortua, gero, Lassallezaleen eta marxisten arteko anitz tirabira ondoren, Engels eta Kautskyren ahaleginak medio batez ere, atzera programa eta oinarri marxista garbiz eraberritua (Erfurt). Berehalaxe sortu dira beste alderdi Sozial-demokratak: 1876.ean Danimarkan, 1879.ean Frantzia eta Espainian, 1883.ean Errusian, 1855.ean Ingalaterran... Sozial demokrazia sozialisten *nazioarteko elkarlana bateratzen (ik. **INTERNAZIONALAK**, II) eta *nazio bakoitzean sozialisten *erakunde-batasuna lortzen lehiatu da (1896.ean sei alderdi sozialista diferente kontatzen zen oraindik Frantzia, Internazionalaren presioz bakarrik lortuko baita batasuna). Sozial-demokraziak *alderdi-mota zeharo berria zekarren alderdi politikoen eta *parlamentarismoaren historian: *masa-Alderdi, ordurarteko «notable-Alderdien» lekuan, zentralki organizatua, Estatu osoan zabaldua, bere alderdi eta masa-aparatu, alderkideen txartel eta kuotaz, bere prentsa, kontsumoko *kooperatibaz, bere koru, udaleku, kultur eta kirol-klubez eta, azkenik, baita hilerriez ere, partikularrak baitzituen: (Estatu bat Estatuan). Sozial-demokrazia klasikoak, *parlamentuetar laster faktore erabakior bilakatua izan arren, *oposizioko huts gisa ikusten zuen bere burua, *kapitalismoak leher egin zezanean *botere osoa berak eskuratzeko asmotan.

2.- Sozial-demokrazia **moderno**a (ik. **INTERNAZIONAL SOZIALISTA**) aparte kontsideratzen da, hain zuzen, batetik, *gober-

nuetan partehartzera sartu delako (1899.ean Frantzia, 1918.ean Alemanian, 1919.ean Austrian, 1920.ean Suedian, 1924.ean Ingalaterran, 1936.ean Fronte Popularrak Frantzia eta Espainian) eta, bestetik, prozesu honen ingurutsuan, Sozial-demokrazia zaharra banatu egin delako, sozialista demokratiko, komunista (leninista) eta komunista ezker-tiartan; harez gero denok elkarrekin burruka beltzean ari dira (ik. **SOZIALISMOA**, II, III). Sozial-demokraziak biltzen du gaur *Mendebal Europako Alderdi-*bloke bortitzena, zenbait Estatutan berak gobernu ezarri izan edo oraindik ezartzen duela (Ingalaterra, Alemania, Suedia, Holanda, Belgika, Danimarka, Norvegia, Finlandia); Eki-Europan Sozial-demokraziarik ez dago, Estatu-botereak xahutua izan baita. Sozial-demokrazia modernoak *marxismoa erlatibatu du (Alderdi batzuk expreski marxista aitortzea utzi egin dute), *leninismoa (ik. **MARXISMO-LENINISMOA**) zeharo arbuiatzen du (*proletalgoaren *diktadura, ekonomi *plangintza zentralista, etab.), *sistema demokratiko pluralista onartu du (ik. **SOZIALISMO DEMOKRATIKOA**); beraz, «botere osoa» inoiz eskuetan izateko posibilitaterik gabe, gradualki saiatzeko da sozialismoa bururatzeko, behialako erreformistek (ik. **ERREFORMA**) eta errebisionistek landua zuten *estrategiari jarraiki (ik. **SOZIALISMOA**, III). Sozial-demokraziari, egun, Mendebalean, Sozialismo esan ohi zaio, soil; eta Alderdi sozial-demokratei, komunisten kontratez, Alderdi Sozialistak.

Joxe Azurmendi

SOZIALISMOA; SOZIALISMO DEMOKRATIKOA; INTERNAZIONALAK.

Sozial-inperialismoa

social-imperialismo/social-impérialisme

*Sozialismoaren izenean diharduen *inperialismoa. Errusian Boltxevikeak (ik. **BOLTXEVISMOA**) *boterera etorri ziren momentutik ari den *sistema politikoa, non lehenago *kapitalismoaren eta inperialismoaren bizio zirela esaten ziren ekiteko moduak, komunistek *Estatu-boterea zutenetik birtute sozialista bilakatzeko baitira.